

LA ECONOMÍA VASCA EN EL PERÍODO 1985-1990: CAMBIOS ESTRUCTURALES

**Josu Iradi Arrieta
Cristina Prado Valle
EUSTAT**

Laburpena

1985-1990 urteetako Input-Output Taulak konparatzeko ikerketa baten bidez, bi urte horien arteko aldiaren euskal egitura ekonomikoan izandako aldaketarik nagusien azterketa deskribatzailea egitea du helburu artikulu honek.

Hori gauzatu ahal izateko, ibilbide bat garatu da aldi jakin bateko errealitate ekonomikoa itxuratzen duten alderdirik nagusienetan zehar; alderdi horiek, besteak beste, biztanleria okupatua, makromagnitude ekonomikoak (dermio korrante zein konstanteetan), baliabideen jatorri eta erabilpenak, sektorekako espezializazioa eta produkzio-ratiorik nagusienak dira; ondoren, euskal ekonomiak estatu-mailan izan duen jokoaren alderaketa eta kanpoarekiko harremanen azterketa burutu dira.

Laburpen gisa, Input-Output taula bat egin zenetik bestea burutu zen arteko aida, nazioarteko ekonomia osoa eta inguruko ekonomiak ukitu dituen suspertze ekonomikoko garaia da. Susperraldi hori krisi handiko bost urteren ondoan agertu da; aipatu krisiaren euskal ekonomia egokitzapen ekonomiko gogorak egin beharrean egon da, eta horrek neurri batean emaitza onak ekarri zituen aztertzen ari garen aidiaren. Suspertze-aidi hau, aurrenik, Barne Produktu Gordinaren (BPG) tasa positiboetan islatu da, urtean %12,4ko hazkundea dermio korrantetan, horrela 1980-85 aldiko % 11,4 gaitzen delarik; saineurrien -industriak batik bat- eragin moderatzailea dela medio, BPGren benetako hazkundea %4,7 da, alegia, aurreko bosturteko hazkunde negatiboak gaituta geratu dira.

Aldiaren ezaugarri nabarmenetakoen artean honako hauek aipa ditzakegu: enplegu okupatuaren sorrera garbia, euskal BPGren tasak estatukoak baino altuagoak izatea, kanpoko saldoaren okertzea, ekonomiaren tertziarizazioa, euskal egituraren egoera ona estatukoaren aurrean eta konpetitibitate-diferentzial negatiboa Estatuarekiko.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. POBLACIÓN OCUPADA: COMPOSICIÓN SECTORIAL
3. EVOLUCIÓN DE LOS PRINCIPALES INDICADORES DE LA ECONOMÍA VASCA
4. ORIGEN Y EMPLEOS DE LOS RECURSOS
5. ESPECIALIZACIÓN SECTORIAL Y RATIOS PRODUCTIVOS PRINCIPALES
6. EVOLUCIÓN DE LA ECONOMÍA VASCA EN EL MARCO ESTATAL
7. RELACIONES DE LA C.A. DE EUSKADI CON EL EXTERIOR
8. CONCLUSIONES
9. ANEXO

ARTICULACIÓN INTERNA DE LA ECONOMÍA VASCA EN EL PERIODO **1985 - 1990**

Cristina Prado Valle
EUSTAT

Laburpena

Honako artikulua honen helburua 1990eko Input-Output taulen arabera euskal ekonomiaren barne egituraketaren azterketa egitea da, dagoeneko ohikoak diren input-output azterketaren zenbait aplikazioen bidez, aurreko taulentzat ildo honetan buruturiko azterketei jarraipena emanez.

Horrek guztiak euskal ekonomiaren barne egituraketaren eremuan izandako egiturazko aldaketa nagusien jarraipena egiteko helburua du. Horregatik, gai honi buruzko aurreko artikuluetan modu zabalean dokumentaturik dauden metodoen deskribapenaren sakonera heldu baino, analisisen emaitzetara heltzen saiatuko gara.

Artikuluaren egituraketa ondoko modu honetan egingo dugu: jehenego atalean lotura bateratzaile zuzen eta erabatekoen analisisen emaitza nagusiak azalduko ditugu, Barne Koefiziente Bertikal eta Horizontalezko Matrizeen eta Leortiefen Alderantzizko Matrizearen arabera, hurrenez hurren. Bigarren atalean, loturen biiakaera azalduko dugu, era absolutuan, hau da, sektore bakoitzaren berezko garrantzia harturik, diren barne bitarteko produkzioen azterketaren bidez. Eta hirugarren atalean, 1990erako antzemandako industriagune nagusiak adieraziko dira, hala nola nagusitasun-menpekotasun eta ekonomia-atxikidura harremanen arabera ekonomia-sektoreen antolaketa hierarkikoa.

Ikerketaren laburpen gisa, laurogeigarren hamarkadaren bigarren zatiko barne-ekonomiaren egituraketa positibotzat jo dezakegu. Azpimarratzekoa da zeharkako eraginaren eremuan izandako onura, bereziki industria-prozesuetan barneratzeko aurreratu duten zerbitzu-sektoreen biiakaerari eta zerbitzu-sektoreen berauen arteko hartuemanen esker. Horiez gain, eragin handia izan dute sektoreen arteko harremanen eraikuntzak eman dion bultzada eta era berean EAEN garrantzi handia duten ekiponetasuneko zenbait sektorek. Dena den, euskal ekonomian oinarritzakoak diren metaigintza sektore batzuk jasaten ari diren ahitzeak kezka sortzen digu, izan ere, ekonomiaren muina osatzen baitute (metaigintzak erabat bereganatua) eta azken finean bitarteko produkzio-kopuru handienak lotzen ditu.

ÍNDICE

0. INTRODUCCIÓN

1. ANÁLISIS DE LOS LIGAZONES UNITARIOS

- 1.1. Análisis de los Ligazones Directos Unitarios. Clasificación Chenery-Watanabe
- 1.2. Análisis de los Ligazones Totales Unitarios. Clasificación Colin-Clark.

2. ANÁLISIS DE LOS CAMBIOS EN LAS PRODUCCIONES INTERNAS CONTENIDAS

- 2.1. Cambios sectoriales en las Producciones Internas Contenidas

3. IDENTIFICACIÓN DE LOS COMPLEJOS INDUSTRIALES Y JERARQUÍA SECTORIAL DE LA ECONOMÍA VASCA

- 3.1. Complejos industriales
- 3.2. Jerarquización sectorial de la economía

CONCLUSIONES

ANEXO ESTADÍSTICO

BIBLIOGRAFÍA

ANÁLISIS INPUT-OUTPUT DEL CAMBIO OCUPACIONAL (1985 – 1990)

Alberto Alberdi Larizgoitia
Fco. Javier Sasigain Saenz de Buruaga
Dirección de Economía y Planificación
Gobierno Vasco

Laburpena

Ekonomia modernoak dituen gertakizunik garrantzitsuenetarikoak zalantzarik gabe ekonomia-hazkundera eta hori sortzen duten arrazoiak dira. Euren artean aldaketa teknikoak arreta berezia jaso du. Faktoreen erabilpenaren egituran izandako aldaketak bilakaera teknologikoaren islada dira eta ezberdintzea ahalbideratzen dute produkzioan faktore kopuru handiagoa ezartzeak suposatzen duena ezezik, are garrantzitsuagoa dena, era ezberdinetan ezartzeak ere. Ekonomia-sistema osatzen duten elementuen zuzeneko eta zeharkako harreman-multzoa azaitzen direnako input-output ereduaren moduko langai bat harreman horiek neurri guztietan jaso ahal izateko erreferentzia-eremu egokia da eta auzi honekiko hurbiiketa praktikoa ahaibideratzen du.

Halere, langai honi harreman-muitzo hori jasotzeko bere eragina murrizten zaio, prozesu produktiboan parte hartzen duten aldagai guztiak batzeko estatistika mugatze ezberdinak direla eta. Modu zehatzean esanda, gai eztabaidagarri eta garrantzitsuenetarikoa enpleguaren azterketa ezezik, okupazioaren araberako banaketa ere bada. Okupazioaren egiturak sektorearen teknologia islatzen du lanindarraren ikuspuntutik, bitarteko kontsumoen egiturak teknologia input materialen ikuspuntutik islatzen duen era berean, eta gainera euren artean lotura estua dela suposa dezakegu.

Ekonomia baten okupazio-egituraren aldaketaren azterketak garapen kualitatiboaren maila adierazten du eta ematen den teknologi aurrerapen motaren karakterizazioa dakar, baita beronek ezartzen duen lanindarraren egokitzea. Enplegu kualifikazio handiagoa edo txikiagoa edo sektore zehatz batzuetan batuago izatea moduko ikuspegiak garrantzitsuak izan daitezke ekonomia jakin baten deskripzio berezgarritua burutzeko.

Lankidetzaren honetan esparru honen azterketan sakontzen saiatu gara. Lehenengo eta behin, azken bosturtekoan (1985-1990) euskal ekonomiaren okupazioaren egituraren izandako aldaketaren deskribzioa egin dugu, hala BPGaren nola enpleguaren hazkunde etengabe eta bizkorreko epea, eta kontrakoarrera erakutsi duen aurreko bosturtekoan izandako aldaketekin alderatzen da. Horretarako, 1991 eta 1986ko Biztanleria Zentsuak eta 1986ko Biztanleriaren Errolda erabili ditugu.

Ondoren, aldaketek eragin dituzten arazo ekonomikoak aztertu ditugu, zehatz-mehatz esanda, aldaketa teknikoaren eta eskaria aldaketaren eraginak, bai bere bolumenarena, bai bere egiturarena. Eragin horien burutzeko input-output ikuspuntuan ohikoa den ondoko analisia erabili dugu: faktore eskasaren azterketa, baina oiraingo honetan sektoreko okupazio-bektore batean ezarririk. Horrela, aipatu hiru osagaietan izandako okupazio aldaketa bakan dezakegu.

Ondorio garrantzitsuenak lan eskualaren kualifikazio handirako eta hirugarren sektorerako joera azkarrak dira, eskualaren kaltetan. Duela gutxi epealdi hedakorrek aldaketa tekniko azkarrak aurreko epeko bikoizten duen (%2 %1ren aldean) lana aurrerako aurrerapen tasa eta lan eskualaren intensitate handiagoa (%4) lortu duenez, profesio egituraren aldaketa sakonak ekarri ditu. Halere, aldaketa honek sortu dituen balizko arazoak sektoreen eta okupazioen lan hazkunde orokorra ahalbideratu duen eskaria kopuruaren hazkunde handiak arindu ditu. Dena den, prestakuntza gutxiagoko pertsona kopuru honek gaur egun aurrerako egin eta seguru aski etorkizunean gogortuko diren lan munduan sartzeko arazoak aurrikusten ditugu. Halaber, indarra hartzen ari diren zenbait okupazio (merkatukoak ez diren beste zerbitzu batzuk) eta beste zenbait jasaten ari diren aldaketa sakonak (dendari, saitzari eta antzerakoak eta administrazio-zerbitzuak) antzeman ditzakegu.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. DESCRIPCIÓN DEL CAMBIO OCUPACIONAL (1986 –1991)
 - 2.1. Evolución por grandes grupos
 - 2.2. Aspectos sectoriales del cambio ocupacional
 - 2.3. Análisis detallado de la evolución de las ocupaciones
3. ANÁLISIS ECONÓMICO DEL CAMBIO OCUPACIONAL
 - 3.1. Sectores más afectados
 - 3.2. Sectores responsables
 - 3.3. Causas del cambio ocupacional
 - 3.4. Profesiones más afectadas por el cambio técnico y el cambio de demanda
4. CONCLUSIONES
5. REFERENCIAS
6. ANEXOS

LOS SERVICIOS Y EL CAMBIO ESTRUCTURAL EN LOS 80. UN ANÁLISIS EN BASE A LAS TABLAS IMPUT-OUTPUT DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

José Moreno

Mikel Zurbano

Departamento de Economía Aplicada I

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena

1-0 Taulen tresneria erabiliaz, 80. hamarkadan zehar EAEko egitura-aldaketari buruzko ikuspegi doia eskaini asmoz aurkezten da ondoko analisia. Zerbitzuel mugaturiko sektore-behaketak produkzio-alorretik aurrikuspen osatuaren gutxiespena badakar ere, produkzio-aldaketeen norabidez eta bere izaeraz argi gehiagorako aukera zabaltzen du.

Produkzio-bilakaeraren azterketak eta egiturazko krisiaren errealitatearekiko elkarloturak bat egiten dute zerbitzuen sektorearteko fluxuen dinamikarekin. Honela, produkzioaren tertziarizazio mailaren, faktore erabakikorren eta krisia eta zerbitzuen garapenaren arteko erantzunkidetasunmailaren azterketa ahaibideratzen da.

Horretarako, analisi kuantitatiboaren eremuko bi metodo erabiltzen dira: eskari finalaren balore unitarioetarako erlazlokidetasunarena eta eskari finalaren balore absolutuei dagokiena. Lehenean, zuzeneko lotura (Chenery-Watanabe kiasifikazioa) eta lotura osoen (outputaren biderkatzaieak eta Jonesen metodoa) bitartez, sektore-adierazgarritasunera eta adar giltzen irudikapenera heltzen da.

Balore absolutuetarako, eskari finalarekiko eta bere osagaiekiko-zerbitzu produkzioen loturak aztertu ostean, zerbitzu produkzioak eskari finalarekiko dituen lotura zuzenekoak eta osoak analizatzen dira. Azkenik, produkzio-eraldaketen ebajuaketa gauzatzerakoan hiru faktore hartzen dira kontuan: teknikoa jehena, eskariaren bolumenarena eta, amaizteko, egiturazkoa.

ÍNDICE

0. INTRODUCCIÓN

1. EVOLUCIÓN E IMPORTANCIA RELATIVA DEL SECTOR SERVICIOS EN LA ECONOMÍA VASCA

1. ANÁLISIS DE LAS INTERRELACIONES DIRECTAS

2.

a. Planteamiento formal

b. Análisis de los encadenamientos directos

3. ANÁLISIS DE LOS EFECTOS TOTALES

a. Planteamiento formal

b. Análisis de los encadenamientos totales 164

4. ANÁLISIS DE LA VINCULACIÓN DE LA PRODUCCIÓN DE SERVICIOS A LA DEMANDA FINAL

a. Planteamiento formal

b. Análisis de la vinculación entre producción de servicios y demanda final

5. ANÁLISIS DE LA VINCULACIÓN DE LA PRODUCCIÓN CONTENIDA DE SERVICIOS A LA DEMANDA FINAL PROPIA O AJENA

5. MUTACIONES EN LAS PRODUCCIONES CONTENIDAS DE SERVICIOS Y SUS CAUSAS

a. Planteamiento formal

b. Las transformaciones en las producciones contenidas de servicios

CONCLUSIONES

BIBLIOGRAFÍA

APÉNDICE ESTADÍSTICO

ELASTICIDADES DE LOS PRECIOS EN LA ECONOMÍA VASCA

Jon Paul Laka Mugarza
José Luis Narvaiza Solís
José Vicente Ugarte Susaeta
Universidad Comercial de Deusto

Laburpena

IOTek islatzen duten EA Eren produkzio-egituraren eikarreragin-sistemaren barruan, ez bairik gabe interesgarria den apiikazioetako bat prezioen malgutasunen azterketa da, hots, input primario jakin batzuetako aldaketek prezioen bilakaeran dituzten eraginak neurtzea. Hemen hiru oinarrizko input primario hartuko dira kontuan: soidatak, soberakin gordina eta diruiaguntzen zerga garbiak.

Horietako bakoitzaren banakako eragina isolatzeko interesak beste bien jokaerari buruzko zenbait hipotesi egitea eskatzen du. Ohiko azterketetan, hipotesi bakarra aukeratu eta produkzio-sektore guztien analisira aplikatzen gara. Azterketa honetan, antzeko beste ikerketetan erabili ohi diren hiru jokaera-hipotesiak batera uztartzen ahalegindu gara, sektore bakoitzari hipotesirik egokiena ezartzen dion guztiz planteamendu malgu batekin. Horrek, jakina, soberakin gordinaren, soidaten eta zerga garbien jokaera-hipotesiak sektore bakoitzean egokitzeari buruzko alde aurretiko ikerketa bat eskatzen du. Ikerketa horretarako 1985eko IOTak erabili behar izan dira informazio osagarri modura (1985eko preziotan eta 1990eko preziotan), sektore bakoitzari zein hipotesi egokitzen zaion hobekien erabakitzeko. Aldez aurretiko urrats hau, gainera, interesgarria da hein batean euskal ekonomiaren biakaera interpretatzeko.

Sektore bakoitzean eta input primario bakoitzeko hipotesirik egokienak zein diren zehaztu ondoren, lan honetan prezioen malgutasunen azterketa egiteari ekin zaio. 90eko IOTetatik ondoko hauek kaikulatzen dira (lan honetan SAS.IML programa erabiliz): input bakoitzeko (73 x 73) matrize bat, zutabe bakoitzean input horren sektore bateko aldaketak sektore guztien preziotan duen eragina agertzen duena, eta input horren sektore bakoitzeko aldaketak famili kontsumoko preziotan duen eragina erakusten duen bektore bat. Lanak azken ataletan emaitzarik deigarrienen interpretazioa eta malgutasun taulen aurkezpena -eranskin batean- dakartza.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN

2. METODOLOGÍA DE ANÁLISIS

- 2.1. Ecuación Básica
- 2.2. Variables e hipótesis de comportamiento
 - a. Beneficios
 - b. Salarios
 - c. Impuestos
- 2.3. Cálculo de elasticidades
 - a. Remuneraciones de Asalariados
 - b. Excedentes Brutos de Explotación
 - c. Impuestos Netos de Subvenciones

3. RESULTADOS OBTENIDOS

- 3.1. Variaciones en las Remuneraciones de Asalariados
- 3.2. Variaciones en los Excedentes Brutos de Explotación
- 3.3. Variaciones en los Impuestos Netos de Subvenciones

REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS

APÉNDICE

NECESIDADES ENERGÉTICAS DE LA ECONOMÍA VASCA. ESTUDIO DE SU EVOLUCIÓN 1985 / 1990

Jesús Rodríguez Feo
EUSTAT
Pedro P. Villegas
Ente Vasco de Energía (EVE)

Laburpena

Lan hau IO Taiiak Euskal AEko produkzio-sistemak 1990ean izandako behar energetikoen eta 1985etik izan duen bilakaeraren azterketara ezartzean datza. Lana 1985eko IO Taulekin buruturikoaren jarraipena eta eguneratzea da.

Artikuiua EUSTATEko IO azterketa tekniketan adituen eta EEEko energi aztertzaileen eikarianaren emaitza da. Elkarreagin honetatik, jehenengo esperientzian bezala, bi aldeek atera dituzte onurak: jehenek zentzua eman diote 10 Taula bat egiteak eskatzen duen lan eskergari, eta era berean energi analisirako beren taulek dituzten alde on eta txarren berri izan dute; bigarrenek, berriz, lortutako emaitzak zuzen interpretatzen ikasi dute, baita Euskadiko IO Tauletan gordetzen diren "sekretuak" ezagutu ere.

Futsean, honako lan hauek burutu dira:

1. 1985 eta 1990 urteetan iharduera-adar ezberdinen Energi Behar Bateratzaileen, Amaierako Outputaren Energi Edukinaren eta Energia Barneko Kontsumo Itxurazkoaren baiioa kaikiatu, beti ere diru-hizkera konstanteetan baloraturik.
2. 1985 eta 1990 urte bitarteko produkzio-ihardueren Energi Intentsitateko koefizienteek (energia kostua Produkzioaren Baiioaren unitateko) ekarritako energi aurrezkoa kalkulatu.
3. Iharduera-adar ezberdinen 1985 eta 1990 urteetarako Energi Biderkatzaieiak kalkulatu.

Burutu den azterketa ex-post erakoa izan da, alegia, energiaren eta euskal produkzio-sistemaren artean denbora-epe jakin batean izan diren harremanak deskribatu baino ez du egin. Antzemandako harremanei buruzko azalpenak IO analisiaren esparruaz kanpo daude eta Tauletatik at bilatu behar dira. Honi dagokionez, lan honen ekarpen nagusia Eranskinean aurkezten diren taulen diseinua eta datuak dira.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
 2. MARCO CONCEPTUAL
 3. NECESIDADES UNITARIAS, CONTENIDOS Y SALDOS ENERGÉTICOS DE LAS RAMAS DE ACTIVIDAD
 - 3.1. Limitaciones de los Resultados
 - 3.2. Análisis de los Resultados
- ANEXO ESTADÍSTICO

ESTUDIO FACTORIAL DE LAS RELACIONES INTERSECTORIALES DE LA C.A. DE EUSKADI A PARTIR DE LAS TABLAS INPUT-OUTPUT 1990.

García Montoya, M.A.
Zárraga Castro, A.
Facultad de CC. EE. y Empresariales. UPV
Arróniz Arbe, R
Iztueta Azkue, A.
EUSTAT

Laburpena

W. Leontief ekonomista errusiarrak egun Input-Output tauiek oinarri duten eredu matematikoa aurkeztu zuenetik, biiakaera handia izan da bai datu-biaketaren teknikan, bai horien aurkezpen eta azterketan ere; horrela, gaur egun herri edo lurralde baten ekonomiaren sektoreen arteko harremanei buruzko informazioa baliogarria lortu da.

Ildo honetatik EUSTATEk (Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística) 1980, 1985 eta 1990 urteetako (azken hauek berriki argitaratuak) Euskal Autonomi Elkarteko Input-Output taulak burutu ditu.

Taula hauek barne ikuspuntutik eginak dira eta estatuko taula batekin alderatuz, ezberdintasun nagusiena Bitarteko Taula eta Azken Eskariko Taularen osagarrien banaketan datza. Estatukoan Tauiaiko ilara bat eta zutabe bat batzen diren edozein taulatxo hiru zenbakiz osatuta dago: naziokoak edo estatukoak, inportazioak eta orotara (bien batuketa); eskualdekoan, berriz, lau zenbaki izango ditugu, izan ere, Estatuko Enparatuaren inportazioak batzen dira.

Artikulu honen helburua Euskal Autonomi Elkarteen barruan ekonomia-sektoreen arteko harremanak aztertzea da. Beraz, aztertutako informazioa 1990. urteko Input-Output Taulen bame matrizeei buruzkoa da. Azterketak ekonomiaren íkuspegí produktiboari emango dio jehentasuna, hau da, inputen sektorekako banaketei, ekonomía-sektore guztiak, lehenengo sektorea, industria eta zerbitzuen sektoreak kontuan hartuz.

Taulen handitasuna dela eta, harreman horiek zailak dira antzematen jehendabizikoz ikustean. Horregatik, tauletan den informazioaren azalpena eskuratzeko dimensioen laburpenaren faktorekako teknikak erabili ditugu, Korrespondentzien Faktorekako Azterketa (KFA), hain zuzen ere. Azterketa horren emaitzak sailkapen automatikoko

metodoarekin osatzen dira: Goranzko Sailkapen hierarkikoa, ekonomia-sektore talde homogeneoak aurkitzeko helburuarekin.

Azterketak, ia-ia osotasunean, SPADN (Système Portable d'Analyse de Données Numériques) estatistika-muitzoaz baliaturik egin ditugu, programa gehigarriak egin behar izan ditugun eragiketa zehatzetan izan ezik.

Metodologiaren aldetik, EUSTATEk eginiko ahalegina azpimarratzekoa da, taula hauek 1980 eta 1985 ur-teetako tauiekin alderagarriak izan daitezen. Horrek sektoreen arteko biiakaeraren azterketa, gertuko etorkizunean ekitea espero dugun lana, ahaibideratzen du eta erakargarri egiten du.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. LA MATRIZ DE DATOS
 - 2.1. Definición de las filas de la matriz de datos
 - 2.2. Definición de las columnas de la matriz de datos
 - 2.3. Algunas consideraciones
3. ANÁLISIS DE CORRESPONDENCIAS
 - 3.1. Breve descripción Metodológica
 - 3.2. Análisis de resultados
4. CLASIFICACIÓN DE LOS SECTORES
 - 4.1. Análisis de clasificación Automática
 - 4.2. Resultados de la clasificación
5. CONCLUSIONES
6. AGRADECIMIENTOS
7. BIBLIOGRAFÍA
8. ANEXO

MACROMAGNITUDES DEL SECTOR ECONÓMICO-AMBIENTAL. NOTAS METODOLÓGICAS.

J. Javier Belza Pérez
IKEI

Laburpena

Ingurugiroa Eusko iauriaritzaren Konkurrentzialtasun-Egitarauan zehazturiko "Cluster"etako bat da. Ingurugiro kontzeptuaren barruan bilduta dauden jharduermultzoa eta ohiko sektorekako saiikapenak arras ezberdinak dira. Horrela, sektore horren azterketa ezin da burutu, Input-Output Tauletatik -gaur egun dauden moduan- zeln euskal estatistika-sistema osatzen duten gainerako eragiketetatik, zuzenean ateratako datuetan oinarriturik.

Hala ere, baliteke, gaur egungo eragiketetatik abaiaturik eta adierazle egokiak erantsiz, horri buruzko makromagnitudeei dagokien urtekako informazioa jaso ahal izatea, guztiz zehatza ez bada ere.

Sektore honen berezitasunen artean, tratamendu estatistikorako kontuan hartu beharrekoak baitira, honako hauek nabarmendu beharra dago:

- Bertan sartu beharreko jharduerak mugatu beharra.
- Sektore tradizionalen arteko sakabanatzea aintzat hartzea. Ekoenpresan hala zerbitzu- nola industri jharduerako enpresak, baita jehen sektorea ere, daude sarturik.
- Ingurugiro-iharduerak sektore honetako enpresen guztizko bolumenean zeregin osagarria edota, areago, bazterrekoa betetzen du sarritan. Ondorioz, "lantoki" edo "ekonomi jharduera unitate" kontzeptuak ez dira zuzenean aplikatzekoak.
- Ingurugiroko jharduera Berezien Saiikapena (xedearen arabera burutua), sektorea mugatzeko saio bat da, baina zaiia da erabilitako saiikapenetan uztartzea; sailkapen horiek produktuetan (OZSN) edota jhardueretan (IESN) oinarrituta daude, bai eta horietatik sorturikoak, Input-Output Tauletan erabiliak (R-73, R-22).
- Berriazko direktoriorik edota Eustateko Ekonomi jhardueren Gidazerrenda ustiatuz atera daitekeenik ez izatea.

Hargatik, badira sektorearen tratamendua eta, ondorioz, ezagutza hobetzeko aukera eman dezaketen aldeko osagai batzuk; ondoko hauek nabarmen daitezke:

- Ingurugiro-iharduera enpresen magnitude ekonomikoen barruan banakatu ahal izatea. Zerbitzu-enpresetan bereziki ingurugiro-mikroenpresak eratu direla antzeman da, eta horietan talde berezituak eta enpresaren gainerako jhardueratik bereiz daitezkeenak daude.
- Iharduaren berezko sailkapena eta Ingurugiro iharduera Ekonomikoko Unitateak ezartzeko aukera; hori Ingurugiroko Iharduera Berezien Sailkapenaren bidez sektorekako eransketak erabil eta burutuz sor liteke.

Makromagnituderik garrantzitsuenak (sektoreko berezko kontuak barne) eta oinarritzko input-output taula batzuk lortzeko gaur egungo euskal estatistika-sistematik eman beharreko urratsak ondoko hauek izan litezke:

- Sektorea mugatzeko irizpide egonkorra hartu, eta hori mantendu, denboran zeharreko bilakaera aztertzeko bidea eman dezan.
- Egungo estatistika-eragiketak erabili, Industri Inkesta (eraikuntza sektorea barne) eta Enpresetarako Zerbitzuetako Inkesta batik bat, bai sektoreko enpresak antzemateko, bai informazio berria eskuratzeko bide gisa ere.
- Enpresetako ingurugiroko jhardueraren tratamendu estatistikoa banakatu, Ingurugiroko iharduera Ekonomikoko Unitateak zehaztuz, erreferentzia-parametroak (fakturazioa, enplegua) aintzat harturik.
- Eustateko gidazerrenda nagusitik eratorritako gidazerrenda berezitu bat eratu; Ingurugiroko jharduera Ekonomikoen gidazerrenda izenda daiteke.
- Hautaturiko galdetegietan (iharduera antzeman edo somagarria duten enpresak) bete beharreko honako datuok txertatu: ingurugiroko produktutzat jotzen direnen salmenta garbiak, horien desagregazioa oinarritzko taula batean, erosketetako partehartzea portzentaian, pertsonal baiiokidea, inbertsioetan parte hartzea, produktuaren jomuga.

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. CARACTERIZACIÓN DEL SECTOR ECONÓMICO-AMBIENTAL
 - 2.1. Encuadre y delimitación de las actividades características medioambientales
 - 2.2. Agentes del sector
3. EL SECTOR ECONÓMICO-AMBIENTAL EN EL SISTEMA ESTADÍSTICO
 - 3.1. Conceptos más relevantes en las tablas Input-Output y en sus fuentes estadísticas
 - 3.1.1. Las unidades de producción
 - 3.1.2. Clasificaciones de productos y actividades
 - 3.2. Localización de la ecoempresa
 - 3.2.1. Correspondencia entre la Clasificación de Actividades Características Medioambientales y las clasificaciones utilizadas
 - 3.2.2. Ubicación de la ecoempresa en la C.N.A.E. y agregaciones
 - 3.2.3. Ubicación de la ecoempresa en las agregaciones de ramas (R-4, R-22 y R-73)
4. OPCIONES METODOLÓGICAS PARA INDIVIDUALIZAR EL TRATAMIENTO DEL SECTOR ECONÓMICO-AMBIENTAL
 - 4.1. Factores incidentes en la viabilidad de unas cuentas del sector y su reflejo en explotaciones posteriores
 - 4.1.1. Puntos de apoyo
 - 4.1.2. Factores de dificultad
 - 4.2. Orientaciones para su desarrollo

BIBLIOGRAFÍA